EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

WWW EUSKADI EUS

2026

AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES

12 Mugikortasun Jasangarria
Movilidad Sostenible

Euskal Trenbide Sarea
Red Ferroviaria Vasca

Euskotren Taldea
Grupo Euskotren

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

WWW EUSKADI EUS

2026

AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urtarrila / 1a, enero 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

12-MUGIKORTASUN JASANGARRIA
12-MOVILIDAD SOSTENIBLE 5

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas 6

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos 37

1228 BEM Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa
MRR Mecanismo de Recuperación y Resiliencia 38

5111 Mugikortasun Jasangarria. Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Movilidad Sostenible 39

5131 Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketa
Infraestructura y Gestión Transporte Ferroviario 42

5135 EAEko Trenbide Sare Berria-Kudeaketa Kreditoak
Nueva Red Ferroviaria en la CAE-Créditos Gestión 45

5136 Bilboko Hegoaldeko Tren Saihesbidea-Kudeaketa Kreditoak.
Variante Sur Ferroviaria de Bilbao-Créditos de Gestión 46

5141 Garraioaren plangintza
Planificación del Transporte 47

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos 50

5111 Mugikortasun Jasangarria. Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Movilidad Sostenible 51

5141 Garraioaren plangintza
Planificación del Transporte 52

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos 53

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos 59

ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS 61

Euskal Trenbide Sarea
Red Ferroviaria Vasca 62

Euskotren Taldea
Grupo Euskotren 87

Eusko Trenbideak, SA
Ferrocarriles Vascos, S.A. 88

Euskotren Participaciones, SA
Euskotren Participaciones, SA 116

12-MUGIKORTASUN JASANGARRIA
12-MOVILIDAD SOSTENIBLE

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

MOVILIDAD SOSTENIBLE

SARRERA

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 DEKRETUAK, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Mugikortasun Jasangarriaren Saila sortzen du, eta haren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen.

Sailburuordetza bat du, Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza, eta bi zuzendaritza, Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritza. Haren zuzendaritzapean dago, hurrenez hurren, «Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.» sozietate publikoa. (ETS), eta «Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea» (RFV-ETS) zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren helburu nagusia da mugikortasun jasangarria herritarren eskubide eraginkor eta beste eskubide batzuk baliatzeko tresna erabilgarri bihurtzeko behar diren jarduketak hedatzea, uste baitu mugikortasun onak, mugikortasun aktiboan eta garraio publiko integratu, unibertsal, eskuragarri eta eraginkorrean oinarrituta, aukera-berdintasuna sortzen duela herritarren artean, eta oso eragin positiboa duela pertsonen eta planetaren osasunean.

Bestalde, garraioaren sektoreak eragiten ditu berotegi-efektuko gasen isurketen % 36 batez ere errepideko garraioan erabiltzen diren erregai fosilen ondorioz. Horrenbestez, garraioa da EAEko emisio-iturri nagusia; eta arazo handia dakarkio klima-aldaketaren aurkako borrokari. Horregatik, alternatiba lehiakorrak eman behar dira trenbideko garraioaren erabilera bultzatzeko eta errepideena apaltzeko, bai pertsonen jon-etorriei bai salgaienei dagokienez, sistemen interkonexioa eta elkarreragingarritasuna erraztea helburu izanik.

Garraio publikoa funtsezko tresna da herrialdearen egitura ekonomiko eta sozialean.

Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da:

A) Garraio-sistema integratu eta koordinatu bat eratzea, garraio publikoari lehentasuna emanez eta erregai alternatiboak kontsumitzen dituzten garraiobideak hautatuz.

B) Irisgarritasun unibertsala bermatuko duen garraio publikoa eskaintzea.

C) Ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzeko neurriak hartzea, mugikortasun aktiboa sustatuz.

INTRODUCCIÓN

El DECRETO 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos crea el nuevo Departamento de Movilidad Sostenible.

Consta de una viceconsejería, la de Infraestructuras y Movilidad Sostenible y dos direcciones, la Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible y la Dirección de Infraestructuras del Transporte. Bajo su dirección se encuentran, respectivamente, la sociedad pública «Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.» (E.T.-F.V.), y el ente público de derecho privado «Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea» (RFV-ETS).

El Departamento de Movilidad Sostenible tiene como objetivo principal desplegar las actuaciones necesarias para convertir la movilidad sostenible en un derecho ciudadano efectivo y una herramienta útil para el ejercicio de otros derechos, en la creencia de que una buena movilidad, basada en la movilidad activa y un transporte público integrado, universal, asequible y eficaz genera igualdad de oportunidades entre la ciudadanía y repercute muy favorablemente en la salud de las personas y en la del planeta.

Por otra parte, el sector del transporte, lastrado por el uso de combustibles fósiles sobre todo en el transporte por carretera, representa el 36% de las emisiones de gases de efecto invernadero. Esto le convierte en la mayor fuente de emisiones en Euskadi y en un problema en la lucha contra el cambio climático. De ahí, la necesidad de propiciar alternativas competitivas que incentiven el uso del transporte ferroviario y desincentiven el uso de las carreteras, tanto en los desplazamientos de personas como de mercancías, favoreciendo la interconexión y la interoperabilidad de los sistemas.

El transporte público es un instrumento fundamental en la vertebración económica y social de nuestro país.

Para conseguir este objetivo se hace necesario:

A) Configurar un sistema de transporte integrado y coordinado, priorizando el transporte público y optando por medios que consuman combustibles alternativos.

B) Proporcionar una oferta de transporte público que garantice la accesibilidad universal.

C) Implantar medidas disuasorias del uso del vehículo privado promoviendo la movilidad activa.

D) Intermodalitatea sustatzea pertsonen eta salgaien garraioan, garraio publikoaren eta zentro logistikoen sare integratu eta koordinatu batean oinarrituta.

E) Eta ingurumena eta herritarren segurtasuna eta osasuna hobetzen laguntzea, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa, energia-kontsumoa eta klima-aldaketaren ondorioak gutxiagotuz, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Europako Itun Berdearekin bat.

Sailaren izaera funtzionala da 2026ko ekitaldirako partidak proposatzeko abiapuntua, sailaren eskumenen esparrua kontuan hartuta eta Gobernu Kontseiluak legegintzaldi honetarako adostutako Gobernu Programan ezarritako lan-ardatz eta -ildoetan oinarrituta.

Azpiegitura propioetan egindako inbertsioak eta Espainiako Gobernuak eskuordetu edo agindutako inbertsioak dira bere kontuetako partidarik garrantzitsuenak, eta horrela jasota daude. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira Bilboko metropoli-trenbidearen 5. linea garatzeko esleitutakoak, Donostialdeko metroaren lurpeko igarobideari dagozkionak, edo tranbia Gasteizko Zabalgana auzora luzatzeko obren hasierari dagozkionak, besteak beste. Era berean, nabarmentzekoa da RENFEk emandako aldiriko trenbide-zerbitzuen kudeaketari dagokion zenbatekoa.

Garraioen arloari atxikitako bi sozietateek, Euskal Trenbide Sareak (ETS) eta Euskotrenek, beren jarduerak garatzen dituzten alderdietan gauzatzeko behar dituzten partidak dituzte.

Aurrekontu horietan, halaber, behar besteko babes ekonomikoa dago etorkizunean honako hauek lortzeko:

A) 2030 Agendaren garapen ekonomiko jasangarriko irizpideekin bat datorren trenbide-sare moderno baten garapena bultzatzea.

B) Tarifa-sistema bakarra eratzea, erabileraren eta ahalmen ekonomikoaren irizpideetan oinarritua, erabat elkarreragingarria, eta zerbitzu-maila seguruak eta kalitatezkoak izango dituena, bai eta garraioaren esparruan esku hartzen duten operadoreak elkarrekin koordinatzea ere.

D) Eta EAEko garraio-sistema publikoaren jasangarritasuna bermatzea, bai alderdi sozialean, bai ingurumenekoan eta bai ekonomikoan (azken hori baliabide publikoen izaera mugatuari dagokionez ulertuta).

Datorren ekitaldirako aurreikusten diren inbertsioez gain, zenbait tresna jarriko dira abian legealdi honetan, sektorea antolatu eta planifikatzeko asmoz: besteak beste, Mugikortasun Jasangarriaren Legea garatu eta Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren bidez ezarriko da, Trenbide Sektorearen Legea idatziko da, eta Trenbide Sektorearen Lurralde Plana egingo da, aintzat hartuta gaur egungo euskal gizarteak zer helburu dituen iraunkortasunari, plangintzari eta antolamenduari dagokienez eta zer behar dituen mugikortasunari dagokionez.

D) Potenciar la intermodalidad en el transporte de personas y de mercancías, a partir de una red de transporte público y de centros logísticos integrada y coordinada.

E) Y contribuir a la mejora del medio ambiente y la seguridad y salud de la ciudadanía, reduciendo la contaminación atmosférica y acústica, el consumo de energía, así como los efectos derivados del cambio climático, en línea con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas y el Pacto Verde Europeo.

La naturaleza funcional de este departamento, en atención al ámbito de sus competencias y con base en los ejes y líneas de trabajo que se establecen en el Programa de Gobierno acordado en el Consejo de Gobierno para la presente legislatura, es el punto de arranque desde el que se proponen las presentes partidas para el próximo ejercicio del año 2026.

Las inversiones en infraestructuras propias y las delegadas o encomendadas por el Gobierno de España, son las partidas más relevantes de sus cuentas, y así constan. En este aspecto destacan las consignadas para el desarrollo de la línea 5 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, las referentes a la pasante soterrada del metro Donostialdea, o la correspondiente al inicio de las obras de la ampliación del tranvía al barrio de Zabalgana en Vitoria-Gasteiz, entre otras. Así mismo, destaca la cuantía correspondiente a la gestión de los servicios de cercanías ferroviarias prestados por RENFE.

Las dos sociedades adscritas al área de transportes, Euskal Trenbide Sarea (ETS) y Euskotren, disponen de las correspondientes partidas que requieren para la realización de sus actividades en las diversas vertientes en las que desarrollan su actuación.

También tienen en estos presupuestos el debido respaldo económico para su futuro desarrollo:

A) El impulso al desarrollo de una red de transporte ferroviaria, moderna y alineada con los criterios de desarrollo económico sostenible de la agenda 2030.

B) La configuración conceptual de un sistema tarifario único basado en criterios de uso y de capacidad económica totalmente interoperable y con unos niveles de servicio seguros y de calidad, así como la coordinación entre los diversos operadores que intervienen en el ámbito del transporte.

C) Y la sostenibilidad del sistema de transporte público de la CAPV en sus tres vertientes: la social, la ambiental y la económica entendida esta última bajo la realidad del carácter finito de los recursos públicos.

Además de las inversiones que se prevén para el próximo ejercicio, el desarrollo de la Ley de Movilidad Sostenible y su implementación a través del Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi, la redacción de la Ley del Sector Ferroviario y la elaboración del Plan Territorial Sectorial Ferroviario van a ser los instrumentos previstos durante esta legislatura, para ordenar y planificar el sector, atendiendo a los objetivos de sostenibilidad, planificación y ordenación que la actual sociedad vasca y sus necesidades de movilidad demandan.

Horretarako, ahalegina egingo da inor atzean gera ez dadin, herritar guztien aukerak hobetzea eta pertsona guztien berdintasun erreal eta eraginkorrean aurrera egitea helburu duen gizarte kohesionatua definitzen duten parametroetako ezeinetan.

Todo ello bajo la premisa de no dejar a nadie atrás en ninguno de los parámetros que definen a una sociedad cohesionada que busca mejorar las oportunidades de toda la ciudadanía y avanzar en la igualdad real y efectiva de todas las personas.

PROGRAMA

5111 MUGIKORTASUN JASANGARRIA. EGITURA ETA LAGUNTZA

PROGRAMA

5111 ESTRUCTURA Y APOYO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE

ARDURADUNA

MUGIKORTASUN JASANGARRIA
ZERBITZU ZUZENDARITZA
KABINETE ZUZENDARITZA

RESPONSABLE

MOVILIDAD SOSTENIBLE
DIRECCIÓN DE SERVICIOS
DIRECCIÓN DE GABINETE

MEMORIA

Egitura eta laguntza programa Zerbitzu Zuzendaritzak eta Kabineteko Zuzendaritzak eramaten dute aurrera. Hierarkian, sailburuaren menpe daude zuzenean, eta, izaera horizontaleko organoak izanik, saileko sailburuordetzei eta zuzendaritzei laguntza eskaintzen die sailaren helburuak lortzeko. Programa horri honako jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea dagokio:

Zerbitzu Zuzendaritza

a) Ekonomia eta aurrekontua.

Sailaren aurrekontua egin eta nola betetzen den jakiteko jarraipena egitea, kontabilitate-espedienteak kudeatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aurrean, espedienteak tramitatzeko beharrezko gastu baimenak onartzea, aurrekontu exekuzioaren inguruko informazioa ematea, eduki ekonomikoa duten azterlan eta memoriak antolatu, koordinatu, eta, hala behar izanez gero, egitea.

b) Pertsonak.

Antolaketa, langileak eta gai orokorrak: Sailaren giza baliabideak eta pertsonal-politika, kokalekuak eta ekipamenduak eta prestakuntza-planak kudeatzen eta antolatzen ditu, besteak beste.

c) Euskara.

El Programa de Estructura y Apoyo se desarrolla a través de la Dirección de Servicios y la Dirección de Gabinete, órganos de carácter horizontal bajo la dependencia directa, jerárquica de la Consejera, cuyo fin es prestar apoyo a la Consejera, a las Viceconsejerías y las Direcciones para la consecución de los objetivos del Departamento. A este programa le corresponde la dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación:

Dirección de Servicios

a) Económico-presupuestaria.

Elabora y realiza el anteproyecto del presupuesto del departamento y el seguimiento del presupuesto. Gestiona los expedientes contables de gastos e ingresos ante la Oficina de Control Económico, las autorizaciones de gasto precisas para la tramitación de expedientes, proporciona la información sobre la ejecución presupuestaria y la programación coordinando, en su caso, la elaboración de estudios y memorias de contenido económico.

b) Personas.

Organización, personal y asuntos generales: gestiona y organiza los recursos humanos del Departamento y la política de personal, ubicaciones y equipamientos y los planes de formación entre otras actuaciones.

c) Euskera.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa gauzatzen ditu, baita horrekin lotuta dagoen urteko kudeaketa-planarena ere. Gainera, planaren tarteko eta amaierako ebaluazio-txostenak egiten ditu. Bestalde, sailaren jardun-esparruen funtzionamenduan erabili beharreko hizkuntza-irizpideak zehaztu eta ezartzen ditu, baita horren jarraipena egin ere. Era berean, saileko langileek lantzen dituzten dokumentuen itzulpenak eta zuzenketak kudeatzen ditu. Gainera, «euskara mikroplana» izenekoa zabaltzen jarraituko du. Ekintza hori euskaraz modu eraginkorrean eta normalizatuan lan egiteko modua eta tresnak bultzatu eta sustatzean datza. Bukatzeko, euskara atalaren webgunea elikatzen jarraituko du, eguneratuta egon dadin.

Lleva a cabo el desarrollo, el seguimiento y la evaluación del VII Plan de Normalización del Uso del Euskera, así como el Plan de Gestión Anual asociado. Además, elabora informes de evaluación intermedia y final del plan. Por otro lado, define, establece y hace seguimiento de los criterios lingüísticos a aplicar en el funcionamiento de las áreas de actuación del Departamento. Asimismo, gestiona las traducciones y corrección de los documentos que elabora el personal del departamento. Además, continuará extendiendo la experiencia denominada «euskara mikroplana» que consiste en promover e impulsar el modo y las herramientas para que se trabaje de forma efectiva y normalizada en euskera. Por último, seguirá cargando contenidos en el sitio web de la unidad de euskera, para que esté actualizada.

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna.

Berdintasunerako Unitatea: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen Testu Bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretu bidez onartua; EAEKO Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian eta berdintasunaren arloan dagokion sailaren plangintzan xedatutakoa gauzatzeko sustapenaz, koordinazioaz eta lankidetzaz arduratzen da.

d) Igualdad de mujeres y hombres.

Unidad de Igualdad: Se encarga del impulso, coordinación y colaboración para la ejecución de lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo, y en la Estrategia 2030 para la igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE, así como lo definido en la planificación departamental correspondiente en materia de igualdad.

e) Lege-aholkularitza.

Xedapen orokorrak (lege-aurreproiektuak, arauak dituzten dekretuak eta aginduak), administrazio-egintzak, Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiak, hitzarmenak prestatu eta bideratzeko lege-euskarria ematea, laguntzen deialdiak, etab., ondare-erantzukizuneko eta ofiziozko berrikuspeneko espedienteen instrukzioa eta sailean eragina duten auzien eta Europar Batasuneko Zuzenbidea hautsi izanaren espedienteen jarraipen eta tramitazioa, erreklamazio eta errekurtso administratiboak ebazteko aholkularitza, saileko organoek eta unitateek eta herritarrek egindako kontsultei lege-aholkularitza orokorra eskaintzea, etab.

e) Jurídico-administrativa.

Presta el soporte jurídico para la elaboración y tramitación de disposiciones generales (anteproyectos de Ley, decretos y órdenes con contenido normativo) y de actos administrativos y acuerdos de Consejo de Gobierno y de convenios, convocatorias de ayudas, etc., realiza la instrucción de expedientes de responsabilidad patrimonial y revisiones de oficio y el seguimiento y tramitación de todos los pleitos y de los expedientes de infracción de Derecho comunitario en los que interviene el Departamento, el asesoramiento en la resolución de reclamaciones y recursos administrativos; asesoramiento jurídico general a consultas realizadas por órganos y unidades del Departamento y ciudadanía, etc.

Gaiak Jaurlaritzaren Kontseilurako izapidetzea eta xedapenak eta egintzak aldizkari ofizialetan argitaratzea kudeatzen du.

Gestiona la tramitación de asuntos a Consejo de Gobierno y la publicación de disposiciones y actos en los boletines oficiales.

f) Kontratazioa.

Sailaren eskumenekoak diren administrazio-kontratazioko espedienteak izapidetu, ebatzi eta formalizatzeko, aholkularitza kontratazio gaietan, kontratazio-espedienteen baldintza-agiriak idazterakoan gainbegiratu eta aholkua ematea, Kontratazio Mahaiaren kudeaketa eta saileko Kontratazio Mahaiaren aholkulari, bokal edota idazkari lanari loturikoak egitea, kontratazio arloko erreklamazio eta errekurtsoen ebazpenen aholkularitza, eta, dagokionean, ebazpen-proposamena, Administrazio-Kontratazioaren Aholkularitza Batzordeko lanak kide izatearren, eta ondare-espedienteen tramitazio, ebazpenak eta formalizazioa. Gainera, bestelako lizitazio motak bideratzean, gardentasunerako neurriak bultzatzen ditu.

f) Contratación.

Tramita, resuelve y formaliza los expedientes de contratación administrativa competencia del Departamento, asesora en materia de contratación, supervisa y asesora en la redacción de los pliegos de los expedientes de contratación, gestiona la Mesa de Contratación y las actuaciones derivadas de la Secretaría-Vocalía-Asesoría de la Mesa de Contratación departamental, asesora en la resolución de reclamaciones y recursos en materia de contratación y prepara, en su caso, la propuesta de resolución, las actuaciones derivadas de la participación en la Junta Asesora de la Contratación Administrativa, así como la tramitación, resolución y formalización de expedientes patrimoniales, impulsando medidas de transparencia absoluta en la tramitación de todo tipo de licitaciones.

g) Herritarrak eta berrikuntza.

g) Ciudadanía e innovación.

Zerbitzu Zuzendaritzak izapidetze elektronikoa sailaren jardueretan ezartzeko zeharkako hainbat proiektu bultzatu eta zuzentzen ditu.

Publizitate-harremanak eta azterlan eta txotxen orokorrak ere bideratzen ditu.

h) Estatistika.

Sailaren jardun-arloetan sartzen diren eta EAEko Estatistika Planean jasota dauden estatistikako informazio beharrak asetzea eta Euskal Estatistika Antolakundearen organoetan parte hartzea.

i) Informatika.

Saileko ekipamendu eta aplikazioek behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabide informatikoak ezarri eta optimizatzeko urratsak ematea.

j) Herritarrak eta gardentasuna.

Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko jarduerak bultzatzen eta koordinatzen ditu.

Kabineteko Zuzendaritza

a) Beste erakunde batzuekiko harremanak.

Jaurlaritzako gainerako sailekiko, Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko harremanak bideratzen ditu. Era berean, komunikazio instituzionala eta protokolo-harremanak ere baditu.

La Dirección de Servicios impulsa y lidera diversos proyectos transversales de implantación de la tramitación electrónica en las actuaciones del Departamento.

También canaliza las relaciones publicitarias y los estudios e informes de carácter general.

h) Estadística.

Cubre las necesidades de información estadística de las diferentes áreas de actuación del Departamento recogidas en el Plan Vasco de Estadística y participa en los órganos de la Organización Estadística Vasca.

i) Informática.

Implanta y optimiza los recursos informáticos necesarios para el funcionamiento de los equipos y aplicaciones del Departamento.

j) Ciudadanía y transparencia.

Impulsa y coordina las actuaciones relativas a transparencia y acceso a la información pública.

Dirección de Gabinete

a) Relaciones con otras instituciones.

Canaliza las relaciones con el resto de Departamentos del Gobierno, con el Parlamento y con el Ararteko. Así mismo lleva la comunicación institucional y relaciones protocolarias.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. SAILBURUORDETZEI ETA ZUZENDARITZEI LAGUNTZA EMATEA, SAILAREN HELBURUAK LORTZEKO.		**1. PRESTAR APOYO A LAS VICECONSEJERÍAS Y DIRECCIONES PARA LA CONSECUCIÓN DE LOS OBJETIVOS DEL DEPARTAMENTO.**
1. Ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketa eta kontrola, jarraipena egitea, lehen kontu-hartzea eta aurrekontuen aurreproiektua egitea.		1. Elaboración anteproyecto del Presupuesto gestión, seguimiento, intervención previa y control económico-presupuestario.
Kudeaketa-dokumentuak.	**3.000**	Documentos de gestión.
Aurrekontuak zenbateraino gauzatu diren jakiteko txostenak.	**15**	Informes sobre el grado de ejecución de los presupuestos.
Sailari atxikitako erakunde eta sozietate publikoen aurrekontuei jarraipena egiteko bilerak.	**16**	Reuniones para el seguimiento del Presupuesto de los Organismos y Sociedades Públicas adscritas al Departamento.
Zuzendaritzei jarraibideak ematea espedienteak behar bezala bidera ditzaten.	**6**	Instrucciones a las Direcciones para una correcta y adecuada tramitación de los expedientes.
Aurrekontuen aurreproiektuak, bilerak.	**15**	Anteproyecto de presupuestos, reuniones.
2. Langileen alorreko administrazio, kudeaketa lan arrunta eta prestakuntza.		2. Administración, gestión ordinaria en materia de personal y formación.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Langileen arloko jarduerak: ordutegi-kontrola, lanaldi-aldaketak, lanaldi-murrizketak, baimenak eta lizentziak, kontratazioak, izendapenak.	**>1.920**	Actuaciones en materia de personal: Control Horario, Cambios de jornadas, Reducciones de jornadas, Permisos y Licencias, Contrataciones, Nombramientos.
Nominaren arloko jarduerak (altak, bajak, AE, nomina-gorabeherak, kotizazioak, kenkariak, atxikipenak, etab.).	**>96**	Actuaciones en materia de nómina (altas, bajas, I.T., incidencias de nómina, cotizaciones, deducciones, retenciones, etc.).
Txostenak.	**>96**	Informes.
Bateragarritasun-espedienteak.	**>1**	Expedientes de compatibilidad.
Aginduak, ebazpenak, zirkularrak.	**>7**	Órdenes, Resoluciones, Circulares.
Kudeaketa dokumentuak.	**>720**	Documentos de gestión.
Kanpoko erregistroak: sarrerak/irteerak.	**>60.000**	Registros externos: Entradas/Salidas.
Prestakuntza-ekintzak.	**>30**	Acciones formativas.
Prestakuntza jaso duen pertsonak.	**>45**	Personas formadas.
3. Hizkuntza-normalizazioa sustatzea eta dokumentuen itzulpena eta zuzenketa kudeatzea.		3. Impulsar la normalización lingüística y gestionar la traducción y corrección de documentos.
Euskara Mikroplanak.	**>2**	Microplanes de Euskera.
Euskara mikroplanetan parte hartzen duten pertsonak.	**>45**	Personas que participan por los microplanes de euskera.
Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ikastaroetan parte hartzen duten langileak.	**>3**	Personas que participan en cursos para la acreditación de perfiles lingüísticos.
Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiztatzen duten langileen ehunekoa.	**%65**	Porcentaje de personal que acredita el perfil lingüístico del puesto que ocupa.
Euskaraz lan egiteko berariazko ikastaroen matrikulak.	**>6**	Matrículas de cursos específicos para el uso del euskera.
Euskaraz sortu eta berrikusteko bidalitako testuak.	**>150**	Textos creados en euskera y enviados para su revisión.
Itzuli beharra duten dokumentuak.	**<300**	Documentos con necesidad de traducción.
4. Genero-ikuspegiarekin loturiko ekintzak bultzatu, babestu eta koordinatzea.		4. Impulsar, apoyar y coordinar las políticas de igualdad de mujeres y hombres.
a) Berdintasun Planak diseinatzea eta egitea.		a) Diseño y elaboración de Planes de Igualdad.
Legegintzaldi Plana.	**1**	Plan de Legislatura.
Urteko-Programa Plana.	**1**	Plan Programático anual
b) Berdintasunaren alorreko plangintzaren jarraipena eta ebaluazioa.		b) Seguimiento y evaluación de la planificación en materia de igualdad.
Programa Dokumentuaren koordinazio- eta jarraipen-bilerak saileko langileekin.	**20**	Reuniones de coordinación y seguimiento del Documento Programa con personal del Departamento.
Programatutako ekintzak noraino bete diren ebaluatzea.	**1**	Evaluación del cumplimiento de las acciones programadas.
Sailaren Programa Dokumentuan aurreikusitako ekintzak.	**15**	Acciones previstas en el Documento Programa del Departamento.
c) Langileei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.		c) Asistencia y asesoramiento técnico en materia de igualdad de mujeres y hombres al personal.
Aholkularitza-dokumentuak eta jakinarazpenak.	**>15**	Documentos de asesoramiento y comunicaciones.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Erantzundako kontsultak.	**>40**	Consultas atendidas.
d) Sailaren arau politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspegiaren txertaketa sustatzeko jarduketak.		d) Actuaciones para impulsar la integración de la perspectiva de género en las normas, políticas, programas y acciones del Departamento.
Berdintasunaren alorreko prestakuntza sustatzeko jarduketa.	**3**	Actuaciones para impulsar la formación en materia de igualdad.
Genero-ikuspegia plan, kontratu, diru-laguntza, hitzarmen eta aurrekontuetan txertatzeko jarduketa.	**10**	Actuaciones para integrar la perspectiva de género en planes, contratos, subvenciones, convenios y presupuestos.
e) Berdintasunaren arloan eskudun diren entitate, organo eta erakundeekiko solasaldi teknikoa eta koordinazioa.		e) Interlocución técnica y coordinación con entidades, órganos y entidades competentes en igualdad.
Saileko Talde Teknikoarekin egindako bilerak.	**2**	Reuniones del GTD (Grupo Técnico Departamental).
Sailarteko Talde Teknikoarekin egindako bilerak.	**>5**	Reuniones del GTI (Grupo Técnico Interdepartamental).
Beste organo edo erakunde batzuekin egindako bilerak.	**10**	Reuniones con otros órganos o instituciones.
5. Aholkularitza tekniko-juridikoa ematea, saileko zerbitzuekin elkarlanean. Xedapen orokorrak eta hitzarmenak landu eta kontrolatzea. Txostenak eta lege-aholkularitza, oro har.		5. Asesoramiento técnico-jurídico, en coordinación con los distintos servicios del Departamento. Elaboración y control de disposiciones de carácter general y de convenios. Informes y Asesoría Jurídica en general.
Izaera orokorreko xedapen arauemaileak tramitatzeko egindako txosten juridikoak.	**2**	Informes jurídicos emitidos en la tramitación de disposiciones normativas de carácter general.
Administrazio-egintzak tramitatzeko egindako txosten juridikoak.	**65**	Informes jurídicos emitidos en la tramitación de actos administrativos.
Hitzarmenak eta Enkarguak izapidetzeko egindako txosten juridikoak.	**20**	Informes jurídicos emitidos en la tramitación subvenciones.
Hitzarmenak eta Enkarguak izapidetzeko egindako txosten juridikoak.	**15**	Informes jurídicos emitidos en la tramitación de Convenios y Encargos.
Bideratutako ondare-erantzukizuneko espedienteak.	**5**	Expedientes de responsabilidad patrimonial tramitados.
Bideratutako ofiziozko berrikuspen-espedienteak.	**3**	Expedientes de revisión de oficio tramitados.
Administrazio-errekurtsoak ebazteko proposamenak.	**2**	Propuestas de resolución de recursos administrativos.
Idatzitako txosten juridikoak.	**50**	Informes jurídicos escritos.
Auzien inguruko izapide eta komunikazioak.	**100**	Trámites y comunicaciones relativas a pleitos.
Kobratutako kostu judizialak.	**>%70**	Costas judiciales cobradas.
Europar Batasuneko Zuzenbidea hautsi izanaren espedienteen inguruko izapideak eta komunikazioak.	**5**	Trámites y comunicaciones relativas a expedientes de infracción de Derecho comunitario.
Gobernu Kontseiluaren akordioak.	**25**	Acuerdos de Consejo de Gobierno.
Gainontzeko sailetako, Estatuko Administrazioko eta Europar Batasuneko arau-proiektuen inguruko balorazioa.	**23**	Valoración de proyectos normativos de otros Departamentos, de la Administración del Estado y de la Unión Europea.
Aholkularitza-bilera presentzialak.	**60**	Reuniones de asesoramiento presencial.
Aholkularitza-komunikazioak, emailez.	**700**	Comunicaciones de asesoramiento por e-mail.
Aholkularitza-komunikazioak, telefonoz.	**700**	Comunicaciones de asesoramiento por teléfono.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Informazio publikoa eskuratzeari buruzko espediente ebatziak.	**10**	Expedientes de acceso a la información pública resueltos.
6. Sailaren jarduketa alorreko administrazio-kontratuak.		6. Contratación administrativa en las áreas de actuación del Departamento.
Kontratazio-espedienteak.	**15**	Expedientes de contratación.
Kontratazio-espedienteak gauzatzeari buruzko txostenak.	**10**	Informes sobre ejecución de los expedientes de contratación.
Kontratazio gaietarako aholkularitza.	**30**	Asesoramiento en materia de contratación.
Jakinarazpenak.	**300**	Notificaciones.
Kontratu-gorabeherak izapidetzea.	**5**	Tramitación de incidencias contractuales.
Likidazioak, aldaketak, luzapenak, prezioen berrikuspenak eta abar izapidetzea.	**8**	Tramitación de liquidaciones, modificaciones, prórrogas, revisiones de precios, etc.
Administrazio klausula berezien pleguak gainbegiratzea.	**20**	Supervisión de pliegos de cláusulas administrativas particulares.
Kontratazio Mahaiko Idazkari lanak burutzea.	**10**	Actuaciones derivadas de la Secretaría de la Mesa de Contratación.
Administrazio Kontratazioaren Aholkularitza Batzordearen bilerak.	**>20**	Reuniones de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa.
Legebiltzarreko galderei erantzuteko eta informazio dokumentatua eskatzeko dokumentazioa prestatzea.	**5**	Preparación de la documentación para dar respuesta a las preguntas parlamentarias y solicitud de información documentada.
Kontratazio-arloko administrazio-errekurtsoak ebazteko proposamenak.	**2**	Propuestas de resolución de recursos administrativos en materia de contratación.
EAEko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean errekurtso bereziak izapidetzea.	**2**	Tramitación de recursos especiales ante el OARC.
Ondare espedienteak.	**9**	Expedientes patrimoniales.
Kontratatzailearen profila eta Kontratuen EAEko Erregistroa kudeatzea.	**200**	Gestión de licitación electrónica, perfil de contratante y del Registro Vasco de Contratos.
7. Saileko estatistika organoak sailaren estatistika lanak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren 4/1986 Legea betetze aldera.		7. Elaboración de la Estadística Departamental a través del órgano estadístico, en cumplimiento de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma.
Indarrean dagoen EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasota dauden sailaren ardurapeko estatistika-eragiketak garatzea.	**5**	Desarrollo de las operaciones estadísticas responsabilidad del departamento, incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE vigente.
Indarrean dagoen EAEko Estatistika Ofizialeko Programan sailari dagozkion estatistika-eragiketen proiektu teknikoak Eustaten izapidetzea.	**5**	Tramitación en Eustat de los proyectos técnicos de las operaciones estadísticas responsabilidad del departamento, incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE vigente.
EUSTATekin eta saileko beste estatistika-erakunde batzuekin batera bileretan parte hartzea, indarrean dagoen EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasotako estatistika-eragiketak garatzeko.	**3**	Participación, junto con EUSTAT y otros órganos estadísticos departamentales, en reuniones para el desarrollo de las operaciones estadísticas, incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE vigente.
Batzordearen eta Euskadiko Estatistika Kontseiluaren eta lantaldeen bileretan parte hartzea.	**2**	Participación en las reuniones de la Comisión y Consejo de Estadística de Euskadi y Grupos de Trabajo.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Saileko planen ebaluazioaren parte hartzea.	**2**	Participación en la evaluación de los planes departamentales.
8. Saileko atalen azpiegitura informatikoen mantentze-lanak eta hobekuntza.		8. Mantenimiento y mejora de infraestructuras informáticas de las diversas áreas del Departamento.
Ekipo informatikoak erosteko proposamena, ekipoen konponketa eta mantentze-lanak, eta aplikazio eta ekipoen ustiapena.	**20**	Propuestas de adquisición de equipos informáticos, reparación y mantenimiento de equipos, explotación de aplicaciones y de equipos.
Sarbideak eta komunikazioak (internet, renting, urrunekoak).	**100**	Accesos y comunicaciones (Internet, Renting, Remotos).
Instalazioak: aplikazioak, sarbideak, zerbitzuak.	**40**	Instalaciones: Aplicaciones, Accesos, Servicios.
9. Saileko atalen behar informatikoen garapen eta diseinu funtzionala.		9. Desarrollo y análisis funcional de necesidades informáticas de las diversas áreas del Departamento.
a) Aplikazio informatikoen garapen eta analisia.		a) Desarrollo y análisis de aplicaciones informáticas.
Aplikazio informatikoak (berriak eta/edo hobekuntzak).	**5**	Aplicaciones informáticas (nuevas y/o mejoras).
Diagnostikoak eta prozesuak aztertzea.	**>5**	Diagnósticos y análisis de procesos.
b) Lantaldeetan parte hartzea.		b) Participación en grupos de trabajo.
Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoaren arloarekin.	**1**	Con el área de Innovación y Administración Electrónica.
Sail-mailan, informazio sozietatearekin.	**1**	Con la sociedad de información a nivel departamental.
10. Sailaren aginpideko zerbitzu komunak antolatu eta kudeatzea. Argitalpenak, zabalkundea eta komunikazioa.		10. Organización y Administración de los servicios comunes del Departamento de competencia del mismo. Actividad editora, divulgativa y de comunicación.
Ekitaldietan parte hartzea.	**4**	Participación en Eventos.
Euskadi.eus eta irekia guneetako edukiak.	**700**	Presencia de contenidos en euskadi.eus e irekia.
a) Komunikabideak artatzea.		a) Atención a los medios de comunicación.
Prentsaurrekoak.	**30**	Ruedas de prensa.
Jakinarazpenen bidalketa.	**600**	Envío de comunicados.
2. PROIEKTU TRANSBERTSALAK KOORDINATU ETA BULTZATZEA HERRITARREN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOAN.		**2. COORDINACIÓN E IMPULSO DE LOS PROYECTOS TRANSVERSALES EN MATERIA DE CIUDADANÍA E INNOVACIÓN.**
1. Sailaren jarduketak bultzatzea, izapidetze elektronikoaren arloan.		1. Impulsar las actuaciones del Departamento en materia de tramitación electrónica.
Elektronikoki izapidetutako jarduketen espedienteen ehunekoa.	**>%95**	Porcentaje de expedientes de actuaciones administrativas tramitados electrónicamente.
Izapidetze elektronikoa duten diru-laguntzen deialdien ehunekoa.	**%100**	Porcentaje de convocatorias subvencionales con tramitación electrónica.
Izapidetze elektronikoa duten kontratazio-espedienteen ehunekoa.	**%100**	Porcentaje de expedientes de contratación con tramitación electrónica.
Izapidetze elektronikorako tresna ezberdinen erabiltzaileen ehunekoa.	**>%95**	Porcentaje de usuarios y usuarias de las distintas herramientas de tramitación electrónica.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Sailaren jarduketak koordinatu eta haiei laguntza ematea, izapidetze elektronikoaren arloan.		2. Coordinar y apoyar las actuaciones del Departamento en materia de tramitación electrónica.
Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako administrazio elektronikoaren zerbitzuekin koordinazio-bilerak.	**10**	Reuniones de coordinación con los servicios de la Administración electrónica de la DACIMA.
Sailetako erabiltzaileekin aholkularitzarako eta koordinaziorako bilerak.	**30**	Reuniones de asesoramiento y coordinación con las y los usuarios departamentales.
Sailetako erabiltzaileei bidalitako zirkularrak eta komunikazioak.	**10**	Circulares y comunicaciones remitidas a las y los usuarios departamentales.
Artatutako kontsulta eta eskaera puntualak.	**100**	Consultas y demandas puntuales atendidas.
3. Sailaren jarduketak sustatzea, koordinatzea eta haiei laguntza ematea, gardentasunaren eta informazio publikoaren eskuragarritasunaren arloan.		3. Impulsar, apoyar y coordinar las actuaciones del Departamento en materia de transparencia y acceso a la información pública.
15 egunetik beherako epe batean erantzundako kontsulta publikoen ehunekoa.	**>80**	Porcentaje de consultas públicas respondidas en un plazo inferior a 15 días.
Epe barruan erantzundako informazio publikoa eskuratzeko kontsulten ehunekoa.	**>95**	Porcentaje de consultas de acceso a la información pública respondidas en plazo.
Sailaren web-orrian eskuragarri dagoen informazioa eguneratzearen ehunekoa.	**>80**	Porcentaje de actualización de la información disponible en la web del Departamento.
Berriro erabili ahal diren formatuetan dagoen informazioaren ehunekoa.	**>30**	Porcentaje de información disponible en formatos reutilizables.
3. SAILEKO ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNUKO BESTE ORGANOEKIKOAK KOORDINATU ETA, HALA BEHAR IZANEZ GERO, EZARRITAKO JARDUNBIDEARI JARRAITUZ, LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANAK BIDERATZEA.		**3. COORDINACIÓN ENTRE LOS DISTINTOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO Y DE ÉSTOS CON EL RESTO DEL GOBIERNO Y EN SU CASO, ENCAUZAMIENTO DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO POR EL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO.**
1. Saileko organoen arteko, gobernuko gainontzeko organoekiko, eta bestelako administrazioekiko harremanak bideratzea, Sailaren jarduketa alorreko irizpideak eta ekintzak bateratu ahal izateko.		1. Concertar las relaciones entre los órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno y otras Administraciones, para aunar criterios y acciones en ejecución de las áreas de actuación del Departamento.
Bilerak, idazkiak eta komunikazioak.	**300**	Reuniones, escritos y comunicaciones.
2. Legebiltzarrarekin elkarlanean aritu eta koordinatzea.		2. Interacción y coordinación con el Parlamento.
Legebiltzarreko galderen erantzunak.	**>150**	Respuestas a preguntas parlamentarias.
Legez besteko proposamenak, mozioak eta interpelazioak.	**37**	Proposiciones no de ley, mociones e interpelaciones.
Informazio dokumentatuaren eskaerak.	**>75**	Solicitudes de información documentada.
Kontroleko osoko bilkuretan esku-hartzeak.	**>7**	Intervenciones en Plenos de Control.
Sailaren agerraldiak.	**>7**	Comparecencias del Departamento.
Arartekoaren gaiak bideratzea.	**>3**	Temas tramitados ante el Ararteko.

PROGRAMA

5131 TRENBIDEKO GARRAIOAREN AZPIEGITURA ETA KUDEAKETA

ARDURADUNA

MUGIKORTASUN JASANGARRIA
GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARITZA
MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO ESTRATEGIAREN ZUZENDARITZA

PROGRAMA

5131 INFRAESTRUCTURA Y GESTIÓN DEL TRANSPORTE FERROVIARIO

RESPONSABLE

MOVILIDAD SOSTENIBLE
DIRECCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE
DIRECCIÓN DE ESTRATEGIA PARA LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

MEMORIA

EAE-KO TRENBIDE AZPIEGITURA HOBETZEA

Herritarren mugikortasunerako sarbidean berdintasuna eta sistemaren jasangarritasuna hobetzea helburu izanik, beharrezkoa da etengabeko hobekuntzan jarraitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide azpiegituren eraikuntzan, kontserbazioan, kudeaketan eta administrazioan ahalik eta efizientziarik handiena lortzeko. Eginkizun horiek Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak garatuko ditu, eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren administrazio tutoretzapean jardungo du.

Aurrez deskribatutako helburuak zehazteko, trenbide-pasaguneak kendu, lehendik dauden azpiegiturak hobetu eta geltokiak eraiki eta berritu behar dira. Horien artean, nabarmentzekoak dira irisgarritasun-hobekuntzak, hori guztia EAEko trenbide-zerbitzuaren maiztasuna, segurtasuna eta, azken batean, kalitatea hobetzera eta gure bezeroei arreta ematera bideratuta.

Ildo horretan, aurreikusita dago 2026an Donostiako aldirietako lineetan topoaren igarobidearen obra nagusiak amaitzea eta martxan jartzea, bai eta Herrera eta Galtzaraborda arteko linea berria osatuko duen Altza-Galtzaraborda tarte berria ere.

2026an, Aginagako mozketa egiten jarraituko dugu, Zumaia eta Donostia arteko zerbitzua hobetzeko, bai maiztasunak handituz, bai bidaia-denborak murriztuz. Aurreikusitako exekuzio-epea 40 hilabetekoa da.

2026an, Eibarko Udalarekin lankidetzan, Unibertsitatearen geltokiko sarbideak hobetzeko eta hiri-ingurunean integratzeko obrak hastea aurreikusten da, udalaren barne-mugikortasun hobea eta seguruagoa lortzearekin batera.

MEJORA DE LA INFRAESTRUCTURA FERROVIARIA EN LA CAPV

Teniendo como objetivos la mejora de la igualdad en el acceso a la movilidad de la ciudadanía y la sostenibilidad del sistema, es preciso seguir en la mejora continua que posibilite la máxima eficiencia en la construcción, conservación, gestión y administración de las infraestructuras ferroviarias de la Comunidad Autónoma de Euskadi, funciones que serán desarrolladas por el ente público Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea que actuará bajo la tutela administrativa de la Dirección de Infraestructuras del Transporte.

La concreción de los objetivos descritos anteriormente se derivan en la apuesta por la supresión de pasos a nivel, la mejora de las infraestructuras existentes y la construcción y renovación de estaciones, entre las que destacan las mejoras de accesibilidad a las mismas, todo ello dirigido a mejorar las frecuencias, la seguridad y en definitiva la calidad del servicio ferroviario de la CAPV y la atención a nuestra clientela.

En este sentido, durante el año 2026 está prevista la finalización y puesta en servicio de las principales obras de la pasante del Topo en las líneas de cercanías de Donostia, así como del nuevo tramo Altza-Galtzaraborda, que completará la nueva línea entre Herrera y Galtzaraborda.

En 2026 continuará la ejecución de la obra de la Corta de Aginaga que permitirá mejorar el servicio entre Zumaia y Donostia, tanto ampliando frecuencias como reduciendo los tiempos de viaje. Su plazo previsto de ejecución es de 40 meses.

En 2026 está previsto el inicio, en colaboración con el Ayuntamiento de Eibar, de las obras de mejora de los accesos de la estación Unibertsitatea y su integración en el entorno urbano, junto con una mejor y más segura movilidad interna municipal.

Era berean, lehendik dauden azpiegiturak berritzeko eta hobetzeko zenbait jarduketa egingo dira, hala nola trenbidea berritzea hainbat bide-tartean eta azpiestazio elektriko berriak eraikitzea.

Pasaiako Portu Agintaritzarekin hitzarmen bat sinatzea aurreikusten da, Pasaiako porturako trenbide-sarbideko obrak gauzatzeko.

2026an amaituko dira Altzolako saihesbidearen obrak; horri esker, trenbidea bikoiztu ahal izango da Arriaga industrialdearen eta Altzola auzoaren (Elgoibar) artean.

Era berean, Zumaian tren-biltegi bat eraikitzeko behar diren obrekin jarraituko da, eta, aldi berean, egoitza bat eta aparkaleku bat jarriko dira trenbide-zerbitzuaren ustiapenari lotutako langileentzat.

Azkenik, ERTMS seinaleztapen-sistema berria ezartzen jarraituko dugu. Horrek, beste hobekuntza batzuen artean, trenbideko zirkulazioaren segurtasun eta erosotasun-maila handitzea ahalbidetuko du.

Aurreko urteetan egindako doikuntzei esker, trenbide-pasaguneak kentzeko obrak arintzera behartzen duen lege-agindua betetzen jarraitu ahal izango dugu, eta 2026ko aurrekontuari beharrezko baliabideak emango dizkiogu aurreko ekitaldietan hasitako jarduketekin jarraitzeko eta aurreikusitako plangintzan aurrera egiteko, interesa duten udalekin eta, hala badagokio, dagokion foru-aldundiarekin hitzarmenak sinatzeko akordioen bidez. Akordio horien arabera, Berrizko Torretxoko trenbide-pasagunea kentzea aurreikusten da.

Era berean, etorkizuneko jarduketetarako azterlanak aurreikusten dira, zerbitzuaren maiztasuna hobetzeko eta herritarrei segurtasun-, fidagarritasun-, efizientzia- eta irisgarritasun-baldintza onenetan eskaintza hobetzeko. Nabarmentzekoa da Loiolako Erriberako aldageltokiaren proiektua, eskaintza intermodala hobetu nahi duten jarduketetan.

HIRIKO GARRAIOAREN TRENBIDE BIDEZKO ESKAINTZA HOBETZEA

Tren-azpiegituren diseinuak, eraikuntzak, kudeaketak eta mantentze-lanek helburu nagusitzat jo behar dute sistema jasangarri eta eraginkor bat lortzea ikuspuntu guztietatik.

Hiri-bilbearen baitan, tranbiak metropoli-garraioaren eskaintza gehigarri gisa proiektatzen dira, eta garraioaren sistema osoan txertatu behar dira, eskaintza eskariari egokitzeko. Beraz, kasu honetan bereziki, beharrezkoa da mugikortasun-azterketak erakunde guztietako teknikariek osatutako lan-mahaien esparruan egitea

Vitoria-Gasteizko tranbiari dagokionez, Zabalganara zabaltzeko obrak eta kotxetegi berriak hasiko dira.

Asimismo, se ejecutarán diversas actuaciones de reposición y mejora de las infraestructuras existentes, como la renovación de vía en diversos tramos y la construcción de nuevas subestaciones eléctricas.

Está prevista la firma de un convenio con la Autoridad Portuaria de Pasaia para ejecutar las obras del acceso ferroviario al Puerto de Pasaia.

En 2026 finalizarán las obras de la Variante de Altzola, que permitirá desdoblar la línea ferroviaria en el tramo entre el Polígono Industrial Arriaga y el barrio de Altzola (Elgoibar).

Asimismo, finalizarán las obras necesarias para disponer de un depósito de trenes en Zumaia, habilitando a su vez una residencia y un aparcamiento para el personal asociado a la explotación del servicio ferroviario.

Por último, finalizará la primera fase de la implantación de un nuevo sistema de señalización ERTMS que permitirá, entre otras mejoras, el incremento de los niveles de seguridad y confort de la circulación ferroviaria.

Los ajustes efectuados durante años anteriores nos permiten seguir dando cumplimiento con el incremento necesario al mandato legislativo que obliga a agilizar las obras de supresión de pasos a nivel, dotando al presupuesto 2026 de los recursos necesarios para continuar las actuaciones iniciadas en anteriores ejercicios y avanzar en la planificación prevista, mediante acuerdos para la firma de convenios con los Ayuntamientos interesados y en su caso con la Diputación Foral correspondiente. Conforme a estos acuerdos se prevé finalizar la supresión del paso a nivel de Torretxo, en Berriz.

Asimismo, se contemplan estudios para futuras actuaciones, todo ello con el objetivo de mejorar la frecuencia del servicio y la mejora de la oferta a la ciudadanía en óptimas condiciones de seguridad, fiabilidad, eficiencia y accesibilidad. Cabe destacar el proyecto del intercambiador de Riberas de Loiola en actuaciones que persiguen mejorar la oferta intermodal.

MEJORA DE LA OFERTA FERROVIARIA EN EL TRANSPORTE URBANO

